## Partimos del área

recreativa de Zumeltza **(1)** y nos dirigimos por la carretera en dirección a Dima, para cruzarla inmediatamente después y tras recorrer la pista del antiguo aeródromo, tomar, al final de la misma, una pista forestal que se adentra hacia la derecha. Siguiendo esta pista principal empedrada, nos encaminaremos hacia Arkaola.

En una media hora habremos alcanzado el caserío Arkaola. **(2)** Continuaremos de frente por la misma pista por la que hemos venido, sin hacer caso de la primera pista que parte hacia la derecha. En el siguiente cruce nos dirigiremos a la derecha y hacia arriba directamente, hasta alcanzar el alto de Estropozueta que tenemos delante. Aquí podremos ver todavía los puestos de cañones del tiempo de la guerra.

Extendiendo la mirada desde este lugar hacia el Saibe, en la barranca de la izquierda veremos Karabizaharko Txarkoa, Urtubi, Txupitelarra Txikia y Beko Erreka entre otros lugares. Nosotros seguimos hacia delante hasta alcanzar el alto de Azuela, donde hay un hayedo y una txabola de pastores a la derecha. Dirigiéndonos hacia la izquierda y siguiendo por la pista por la que hemos venido, llegamos a Dantzaleku. **(3)** Han transcurrido 1 hora y 5 minutos aproximadamente.

Estamos en Dantzaleku -como su mismo nombre indica, lugar de romería de los arratianos a la vuelta de Urkiola por San Antonio-, hayedo y zona de campa en los límites de los municipios de Abadiño y Dima. Desde este punto nos dirigiremos directamente hacia adelante a la ladera del Saibe, por una pista protegida con alambrada, dejando atrás las pistas que vienen a derecha e izquierda desde Urkiola y Usurru, respectivamente.

Continuamos por nuestro camino hasta cruzar el arroyo de Karabizahar y encontrar sobre una pista, a unos 100 m. más adelante, el antiguo calero de Karabizahar. Han transcurrido 20 minutos desde Dantzaleku. Seguimos adelante por nuestra pista, dejando de lado la que se nos presenta a la derecha y que conduce al Saibe y al Urkiola. Saldremos a un claro, donde nos encontramos con el cruce que lleva por la derecha a Saibe, y por la izquierda y hacia abajo a Txupitelarra, hacia la parte interior izquierda de este cruce, Aiztxiki. En dicho cruce, nosotros tomaremos, hacia la derecha y hacia arriba, la pista que va a Saibe, **(4)** pudiendo alcanzar la cima en 20 minutos. Hemos invertido 55 minutos desde Dantzaleku.

En la cima del Saibe, descendiendo de frente, nos dirigiremos hacia Iturriotz siguiendo la pista que discurre junto a una alambrada, y nos encontraremos allí en 15 minutos. Una vez en Iturriotz, **(5)** tomaremos en el rellano la pista de la izquierda, que se bifurca inmediatamente. Aquí elegiremos la que desciende hacia la derecha hasta llegar a la campa de Txupitelarra, dejando atrás la pista que viene de Aiztxiki y desciende de Saibe por la izquierda.

En esta campa iremos hacia la derecha a través de un pinar, para acercarnos hasta el lugar en que se hallan los restos de unas antiguas canteras. Aquí, además de contemplar los restos de las canteras, tendremos la oportunidad de admirar, mirando hacia Usurru, un hermoso tejo. Retomando el camino que nos ha traído a las canteras, volveremos a la campa y nos dirigiremos al alto de Txupitelarra. Desde Iturriotz, 20 minutos. Desde el alto de Txupitelarra podemos observar Eskua, Keixa, Otsatx, Urri... Volvemos a la pista y tomamos la descendente que avistamos a la derecha, hasta llegar a Ursaltu, **(6)** en el barranco inferior. En este punto, tras haber tenido la oportunidad de ver el comienzo del canal que desemboca en la presa de Ormeta, nos adentraremos por la pista.

En el primer cruce, dejando de lado la pista de la izquierda que conduce a Arkaola, tomaremos la de la derecha para descender la pendiente de Mesille y dirigirnos, a través de Atxzorrotz, Behileku y la campa de Arkaola, hasta Zumeltza. Habrán transcurrido 40 minutos desde la cumbre de Txupitelarra y 3 horas escasas desde nuestro punto de partida inicial, para completar un recorrido de 9 km. aproximadamente.








## PR-BI-43

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | zumeltza | 0 km | 0’ | 5 | iturriotz | · | 15’ |
| 2 | arkaloa baserria | · | 30’ | 6 | ursaltu | · | |
| 3 | dantzaleku | | 35’ | 1 | zumeltza | · | 60’ |
| 4 | saibe | · | 55’ | | **guztia - total** | **19 km** | **195’** |

# Zumeltzako (1) atseden

parketik aterako gara Dimaranzko errepidea hartu eta berehala berau gurutzatuko dugularik, zelaian egazkinentzako dagoen pistatik jarraitu eta honen amaieran eskuinerantz doan pista edo aldaia hartuz. Harritutako aldaia nagusi honetatik alboetakoak alde batera utziz Arkaolarantz abiatuko gara.

30 minututan Arkaola baserrian izango gara. **(2)** Etorri garen pistatik zuzen egingo dugu aurrera eskuinera ateratzen den lehen pista albo batera utzi eta hurrengo bidegurutzean eskuinera eta zuzen gorantza egingo dugularik, aurrean dugun Estropozuetako gana jo arte. Hemen oraindio gerra denborako kainoien paradak nonnahi ikusteko aukera dugu. Gane honetatik Saibe aldera begiratuz ezkerraldean dugun trokan Karabizarko txarkoa, Urtubi, Txupitelarra Txikia eta Bekoerreka besteak beste. Guk aurrera egingo dugu Azuelako gana jo arte (pagadia eta artzaitxabola eskuin aldean). Hemendik ezkerretara eginez eta, apurtxo bat aurrerago ekarri dugun pistari jarraituz, Dantzaleku. **(3)** Ordu bat eta 5 minutu inguru igaro da.

Dantzaleku; Urkiolatik etxerantz, San Antoniotan arratiarren erromeri lekue. Pagodi eta zelai gunea, Abadiño eta Dima udalerrien mugan. Puntu honetatik zuzen egingo dugu aurrera Saiben magalerantz, aldaia alanbrezko hesiz babestutik dugularik, eskuinetik ·Urkiolatik· eta ezkerretik ·Usurrutik· datozen pistak atzean utziz. Bide honetatik aurrera egingo dugu Karabizaharko errekea gurutzatu eta 100 bat metro aurrerago bide gainean Karabizahar (Karabie) jo arte. 20 minuto igaro dira Dantzalekutik.

Pistan jarraituko dugu, eskuinetik sartzen zaigun Saibe eta Urkiolara doan aldaia alboan utziz, bideari aurrera ekinez. Garbiune batera aterako gara, bertan eskuinerantz –Saibera· esta ezkerrera eta beherantz, Txupitelarrara zuzentzen dan bidegurutzea aurkituko dugularik. Bidegurutze honen behekalde eta ezkerraldean Aiztxiki. Bidegurutze honetan, guk, eskuinera eta gorantz, Saibera **(4)** doan pista hartu eta 20 minututan gaina joko dugu. Dantzalekutik 55 minutu pasa dira.



Saibeko tontorrean beherantz eta zuzen Iturriotzerantzako norabidea hartuko dugu, alanbrada ondotik doan aldaiari jarraituz; 15 minutu. Behin Iturriotzen, **(5)** zelaigunean ezkerretara dagoen pista hartu eta berehala pista hau bitan banatzen denez eskuinekoa eta beherantz doana. Txupitelarrako zelaia jo arte, ezkerretik eta goitik behera Saibe. Aiztxikitik datorren pista atzean utziz. Zelai honetan eskuinera, pinadian barrena zuzenduko gara, Kanteretara hurbiltzeko. Bertan harrobien arrastoez gain Usurru aldera begiratuz hagin eder bat ikusteko aukera izango dugu. Kanteretara ekarri gaituen bidea berriz eginez zelaira itzuli eta Txupitelarrako gana joko dugu. 20 minutu Iturroitzetik.

Txupitelarrako gane honetatik Eskua, Keixa, Otsatx, Urri,... Berriz zelaira itzuli eta eskuinera eta beherantz aurrikusten dugun pista hartuko dugu, beheko troka, Ursaltu **(6)** jo arte. Puntu honetan, Ormetako presara doan kanalaren hasiera ikusteko aukera izan ondoren, pistari ekingo diogu. Lehen bidegurutzea, ezkerrera, Arkaola aldera doana alboan utziz, guk eskuinera eginez Mesilleko aldatza jeitsiko dugu Atxzorrotz, Behileku eta Arkaolako zelaitik zehar Zumeltzara abiatuko garelarik. 40 minutu Txupitelarrako tontorretik eta hiru ordu eskas irteera puntutik abiatu garenetik, 9 bat kilometro eginez.



dima